

...eta

Kitto!

870 zkia.
2013-XII-13

Etorkizunari ekiteko...



...GERTATU

Gabon hauetan **Gaes**-ek ilusioz beteko zaitu

R.F.S. N.º 45-5610.

GAES
Entzumen Zentroak



ENTZUMEN ZENTROAK 2013
Phonak iturgailuak GAES, Marboletxer 189 leku
Hondatze Iturriak, Gaitheak 2013 a 2015 artean
entzun 196. 05/12 a 07/12 www.05entzumen.es

%15-eko deskontua audifono eta komunikazio sistemetan

+ OSASZUN GAZDA

Dentistak

ARAT Hartz Klinika
ARRETA-ZERBITZU INTEGRALA



Hortz-osasuneko profesional taldea zure zerbitzura

Mutua, konpainia eta kolektibo handiekin itundutako zentroa...

UniverSalud

TORIBIO ETXEBARRIA, 4-1. esk. Tel: 943 20 18 51

RPS 04/02

IRAZABAL
clínica dental

Iribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.
Tfnoa. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

Errehabilitazioa

CRF AMOSTEGI
ERREHABILITAZIOA



- * Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- * Min-Unitatea
- * Inkontinentzia urinarioak
- * Kirol medikuntza
- * Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

RPS: 53/13

bista eder
clínica dental - hortz klinika

Asko dira
gure hortz-kliniketara etortzeko arrazoiak



20.000tik GORA PAZIENTE
ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

Bista Eder, 19 943 70 00 82

hartz-klinika
B. IZAGIRRE
clínica dental

EGUNERO

Untzaga, 5 - 4. Tel. 943 70 23 85

Estetika klinika

abontza
clínica estética

Dr. J. Ramón Fdez. Ciudad

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

KIRURGIA ESTETIKOA

Egiguren, 6 - behea 943 206 044

Pedro Etxebarria Gisasola
DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara

EGUNERO

Calbeton 19 - 3. esk. Tfnoa: 943 20 72 17

invisalign
Ikusten ez den ortodontzia

Ortodontzia ume eta helduentzat

M^a Dolores Olaizola Doktorea
RPS 195/11

EIBARKO ZENTRO MEDIKOA

Urkizu, 13 (Orbeako Dorreak)
Telf.: 943 120 200 - 943 425 706
www.mariadoloresolaizola.com

Fisioterapia

ANE MENDIA
970 Kolegiatu zbkia.

ARRAQUETA, 20
Tlf.: 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com

FISIOTERAPIA ZENTRUA

GASTESI
Hortz-Klinika
Ane Gastesi



Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI
Ortodontzia / Inplanteak / Laser Teknologia

Bidebarrieta, 10-2. eskua 943 70 00 90

MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Inplanteak

Bidebarrieta, 7-1. esk. 943-702896

FISIOTERAPIA

ENEKO MAILAGARAI 901 kolegiatu zbkia. OSTEOPATIA
NEUROLOGIA
NEURO-ESTIMULAZIOA

S. Agustin, 2-4 - M lokala Tel. 622 14 58 58

**HEMEN ZURE TOKIA izan nahi baduzu ...
... deitu 943-206776 telefono zenbakira**

ASTEAN ESANAK

"Euskerazko estilistik onenak gaur egun itzultzaileak gara. Gure lana ondo kontsideratuta dago eta hobeto ordaintzen digute Espainian baino. Hori bai, bakarrik dabilen itzultzaileak geroz eta okerrago egingo du, arriskua baitu monolektoan erortzeko. Gure inurri lana elkarrekin komunikatzen direnena izan beharko luke"

(JOSU ZABALETA, ITZULTZAILEA)

"Ofizialtzat eta jakinekotzat jotzen den informazioaren arabera, Gallastegik behin baino ez zion irabazi Atano handiari. Baina, benetan, Gallastegik lau aldiz irabazi zion, aurrena 1942an eta azkena sei urte geroago. Atano handia gutxietsi gabe, aitor ditzagun Gallastegiri ukatu eta zoz zaizkionak"

(AMATIÑO, KAZETARIA)

"Billy el Niño eta Jesus Muñecas guardia zibil ohiek deklaratu dute, estradizio eskaria, hasiera batean behintzat, aintzat hartuz Auzitegi Nazionalak. Harritu nau. Eta ezarritako neurria iruditu zait grazioso, Espainiatik irtetea debekatzea. Non egongo dira, baina, Espainian baino seguruago"

(MIKEL ELORZA, KAZETARIA)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

JUEZ.- Epailea, bitartekaria, zuzentzaile. "Jeronimo Txikixa juez zanian, ez eben auziak aurrerapenik".

JUEZERA JO.- Auzitara joan, eroan. "Urtiak demandan ibilita gero juezera jo zebeñ".

JUEZERA JOKATU.- Auzitara jo. "Eziñ alkar aittutako anaiak ziran eta juezera jokatu eben bixen zoritxarrerako".

eskutitzak

2013KO EUSKARAREN EGUNA

Arrakasta handia izan zuen abenduaren 3an *Ipini aurpegia euskarari* lemapean antolatutako ekitaldiak. 1.600 lagun inguru hurbildu ziren udal-terako patiora argazkia egitera eta mezuak sare sozialen bitartez zabaldu ziren.

Antolatzaileok (...eta kitto!, AEK euskaltegia, Udal Euskaltegia, Udaleko Euskara saila eta eskalgintzako lan-taldea) eskerrak eman nahi dizkiegu **euskarari aurpegirik onena ipintzera** bertaratu ziren elkarte, ikastetxe, erakunde, familia eta norbanako guztiei.

Bestalde, zorionak eman nahi dizkiegu egun horretan hain gogor eta gogotsu argazki bikainak ate-

ratzen jardun zuten **Jose Valderreyri eta Felipe Loyolari**, egindako lan dotorearengatik. Ezin aipatu gabe laga, beti laguntzeko prest izaten baitira, giroa argazkietan islatzen ibili ziren **Klub Deportiboko argazki taldeko argazkilaria, sare sozialen** kontuetan eta behar izan genuen guztian laguntzaile izan genituen **Leire Narbaiza eta Asier Sarasua**.

Datorren astetik aurrera ikusgai izango dituzue egun horretako argazkiak web orri honetan: www.ei-barko-euskara.com

Gerorako asmoa da argazki guztiekin mosaiko edo mural bat egitea, ikusgai jarriko dena.

EUSKARAREN EGUNEN ANTOLAKETA BATZORDEA

ZORIONAK DENORI ETA ESKERRIK ASKO

Aldizkari honen 25. urteurrenaren eta haren ingurukoaren harira, zoriondu nahi nituzke sasoi hartan proiektua martxan jartzera animatu ziren Fernando, Bego biak eta Aurora eta eurekin zeregin hori konpartitu zuten aurreko 5ean oroigarria jaso zuten Pili, Begoña, Iñigo eta Roberto. Ondo merezita baitzeukaten guztia eta euren presentziarekin ekitaldia borobiltzen lagundu zutelako.

Bestalde, eskerrik asko bosgarren oroigarria nire eskuetan jartzearen. Ez nuen horrelakorik espero eta sentitzen dut batzuk larri ibili izana nik horren berri izanik ihes egingo nuela beldur izan baziren. Benetan, estimatzen da detailea. Zeozer esan behar nuela ziotenei, ulertzen dut

baina horrela nahiago: proiektuan parte hartzea mugatu denak ez du izango, ba, sortu dutenek baino protagonismo gehiago. Gainera, lau oroigarriak batera jasotzea, niretzat behintzat, aziertoa izan zenean.

Aldi berean, zorionak ekitaldia antolatzearen eta bideoa muntatzearen ardurak izan zuten Ane eta Koldori. Baita Iñtzari ere erakutsitako prestutasuna eta kemenarengatik; eta Trunboiri abestutako bertso dotoreengatik. Eta, batez ere, Pleno aretoan izan zinetenoi. Zer esanik ez mende laurden honetan ...eta kitto!-ren eragile, irakurle eta jarraitzaile izan zaretan guztioi. Segi horrela!

J.L.G.



Euskara Elkartea

ARGITARATZAILEA: ...eta kitto! Euskara Elkartea. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar

TELEFONOAK: 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.

Astekararen E-MAILak: erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com / publizitatea@etakitto.com / elkarteen@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA: Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez, Koldo Mitxelena. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILEA:** Koldo Mitxelena.

ERREDAKZIO-BURUA: Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA: Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.

PUBLIZITATEA: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** Silbia Hernandez

BANAKETA-ARDURADUNA: Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.100 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!" ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



**EIBARKO
UDALA**



**GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)**

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailak diruz lagundutako aldizkaria

"Txopitea eta Pakea" ONCE-ri

Santa Luzia ospatzeko egin-
go den bazkarixan, bixar ja-
soko dau Eibarko ONCE-k
Oteizak Daniel Txopiteari es-
kindutako "Txopitea eta Pa-
kea" eskulturaren kopixia al-
katiaren eskutik. Itsuen al-
katiaren sorreraren 75.ur-

teurrena eta ONCE Fundazi-
ñuaren sorreraren 25. urteu-
rrena bete dira eta horregait-
ttik emongo detse oroigarri-
xa, urteurrenen aitzakixare-
kin fundaziñuak gizartiaren
alde egitten daben biharra
eskertzeko.



ONCEri gizartian egitten daben biharra eskertuko detse bixar. ARTXIBOA



Euskeriaren Eguneko argazkixak datorren astian erakutsiko dira.

1.600 aurpegi euskeriaren alde

Euskeriaren Egunian 1.600 bat lagun pasau ziran udaletzeko pa-
tixotik erretratua etara eta euskeriaren alde aurpegixa ipintzera.
Jose Valderrey eta Felipe Loiola argazkilarixak egun osua emon
eben erretratuak etaratzten eta datorren astetik aurrera www.ei-
barko-euskara.com webgunian hórretxek ikusteko aukeria egon-
go da. Bestalde, abenduaren 3an bertan euskeriaren erabilleria
ordenantza bidez arautzeko konpromisua hartu eban Udalak, eta
araudi barrixa 2014ko Euskeriaren Egunerako onartuta egongo
dala aurreratatu dabe.



Metalekuak borrokan

Metalgintzako bihargiñak hitzarmenaren aldeko borrokarekin au-
rera segitzen dabe eta, horren harira, atzo goizian alkarretaratzia
egiñ eben Gipuzkoako LAB sindikatuko metalgintzako delegauak
Azittaingo poligonuan, JAZ Zubiaurre lantegixaren aurrian.

Ziburu-zaura barrixak Amañan

Trenbideko biharrak eraginda
jolasteko toki gitxiago dago
Amañan azken aldixan eta, ho-
ri konpontziarren, Udalak
18.000 euro gastau dittu Pedro
Zelaia plazan ziburu-zaura bar-
rixak ipintzeko eta tokixa
umiendako egokitzeko. Hiru
eta hamar urte bittarteko
umiendako egokixak diran jo-
lasak ipiñi dittue bertan: itsa-
sontzi itxuria dakan parrapasa,

ziburu-zaura bikoitz bi eta
beste bi zinbulu-zanbulu.
Trenbidia bikoitzeko biharren
eragiñez Amañaren sarreran,
Kutxa parian egun parkia de-
sagertu da eta, horregaittik,
Pedro Zelaian egindako lez,
Azkena taberna parian eta To-
rrekua osasun zentruaren in-
guruan beste jolasleku batzuk
egokitzeko asmua dakela au-
rteratu dabe agintarixak.



Josu Mugerza sukaldarixa "Salvame"-n

Datorren asteko astelehenetik
egunera bittartian, Belauste-
gi jatetxeko Josu Mugerza Tele
5 kanaleko "Salvame" progra-
man egongo da, Angulas Agui-
nagaren eskutik. Bertan gulak
promozionauko dittu eta zuzen-
nian sukaldian biharrian ikus-
teko aukeria egongo da.



Elgoibarko sukaldarixa Krabeliñeko Mireia Alonsorekin.

Sanandresak euripian

San Andres eguna euripian ospatu genduan baiña, halanda be eta karpn babe-sari esker, jende mordua ibilli zan azokan eta eguardira bittartian egindako guztietan eta bazkal aurretik sarixak banatu zittuan Udalak: presentaziño onenari sarixa Alejandro Arrietak jaso eban eta bigarren onena Peio Rubiok; barazki postu oneneri sarixak be euredako izan ziran, baiña alderantzizko ordenian (lehenlengua Peio Rubiorendako eta bigarrena Alejandro Arrietarendako); frutetan Gabiriko Tomas



Maiora sarittu eben; ezti onenak Ekaitz Aurre eta Eugenio Elortzarenak izan ziran; gaztagillien artian Azkarrako Gorka Asumendi eta Elgoibarko Mausitxa nagusittu ziran; eta ogixetan Jesus Zaldua eta Maite Leanizbarria sarittu zittuen; Eibarko baserri onena Gisasola izan zan.

Maiora sarittu eben; ezti onenak Ekaitz Aurre eta Eugenio Elortzarenak izan ziran; gaztagillien artian Azkarrako Gorka Asumendi eta Elgoibarko Mausitxa nagusittu ziran; eta ogixetan Jesus Zaldua eta Maite Leanizbarria sarittu zittuen; Eibarko baserri onena Gisasola izan zan.

Mateo Guilaberti omenaldixa

Krabelin jatetxeko San Andres bezperako maridaje afarixan omendu eben Mateo Guilabert. Hunkituta eta pozarren jaso eban Mateok grabadore-

bolia alkatiaren eskutik eta gaba ondo baiño hobeto emon eban omenduak, fameliakiak eta lagunak inguruan zittuala bapo afalduta.



Mateo Guilabert omendua Josefina bere andriarekin eta Krabelin jatetxeko jabeekin. SILBIA HERNANDEZ

autuan

GABONEKIN

Ekingunek lehen Gabon afarixa antolatu dau abenduaren 20rako, bestiak beste aurtengo balanzia egiñ eta datorren urterako lan ilduak aurreratzeko. Afarixa Iruki sagardotegixan izango da, 21.00etan eta menuak 23 euro balixo dau. Izena emoteko ekingune@ekingune.com helbidera idatzi edo 943208420 telefonora deittu leike.

EKITALDI SOLIDARIXUAK

Eibarko Sozialistak Gabonak dirala eta janarixa eta jostailuak batzen dihardue. Lagundu nahi dabenak hillaren 16ra arte eruan leikez gauzak Untzagako Casa del Pueblora. Bestalde, bixar 12.00xetatik 14.00etara baba-jan solidarixua egongo da martxan Ifar Kaleko egoitzan: raziñuak 5 eurotan salduko dittue eta dirua Filipinetara bidaltzeko izango da.



Mikel Zarrabe aske

Herritik ihes eginda 34 urte eta 24 urte kartzelan emon dittuan Mikel Zarrabe abenduaren 2xan askatu eben, zigorra oso-osorik bete eta gero. Teruelgo espetxetik urtetzian etxe-kuak juan jakozen billa eta gabian aillegau zan Eibarrera.



FELIX ALONSO CABRIA^{ren}

1. urteurrena (2012-XII-13)

Zu joan zara, baina, zureganako gure maitasuna ez. Ez ditugu inoiz ahaztuko izan dituzun ilusioa eta bizipoza.





ESKUMUTURREKO
BOLATXO BELTZA:
21 euro



LAUBURU KARRATUA
BELARRITAKOAK:
5,20 euro



EGUZKILORE BELARRITAKOAK:
18 euro

ZINTZILIKARIOAK:
eguzkilore handia 29 euro
eguzkilore txikia 15,30 euro
lauburua 8 euro



NESKENDAKO
ESAIT KAMISETA:
24 euro



GIZONEZKOENDAKO
ESAIT KAMISETA:
24 euro



ESKUMUTURREKO
EGUZKILORE LARRUA:
44 euro



LAUBURU OBALOA
BELARRITAKOAK:
5,20 euro



GILTZAK ZINTZILIKATZEKOAK:
10,60 euro



EZ DA POSIBLE KAMISETA:
18 euro



UMIENDAKO ESAIT
KAMISETA:
20 euro



UMIENDAKO ESAIT
KAMISETA:
20 euro



BURDINEZKO MAHAI GAINEKO
LAUBURU HANDIA:
11,50 euro



EURITAKOAK:
11,70 euro



EUSKERAZ BIZI NAHI
DUT KAMISETA:
10 euro

NESKAK:
S, M, L
MUTILAK:
S, M, L, XL



BURDINEZKO MAHAI
GAINEKO LAUBURU
TXIKIA:
8,25 euro

Etorri Olentzerori zerrenda
egiten laguntzera. Egunero,
...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEAREN
bulegoan (Urkizu, 11)
ASTELEHENETIK BARIKAKURA
10.00-13.00/16.30-19.30

**IKUSI,
AUKERATU eta
EGIN ENKARGUA!**



KITTO-AMANTALA:
10 euro



PARETAN JARTZEKOAK: 6 euro

KITTO-AMANTALA:
15 euro



ATERAKO ALFONBRA: 12 euro

**ARBOLARAKO
OLENTZERO:**
3,75 euro



...eta kitto! Euskara Elkartearen Gabonetako KATALOGOA


KATALOGOAK DITUEN IRABAZIAK EUSKERA SUSTATZEN ERABILIKO DITUGU



Euskara Elkarte




KARRIKIRI
IRUÑEKO EUSKALDUNON ELKARTEA



NAFARROA: 8,10 euro



JAINKO TXIKIA: 19,65 euro



VOICES OF EUSKADI: 8,10 euro



MIKEL LABOA: GERNIKA: 16,70 euro




NAPOKA IRIA: 15,55 euro



RUPER ORDORIKA: 16,70 euro



SU TA GAR: 15 euro



JAIOBERRIAREN LIBURUA: 24,50 euro



**KUADERNO
OHARRAK
LAUBURU:**
6 euro

**KUADERNO
LAUBURU
TXIKI:**
8 euro



**KUADERNO
HELBIDEAK:**
8 euro



**ARGAZKIRAKO
ALBUMA:**
txikia 12 euro
handia 18 euro



**DISKO,
DVD ETA
LIBURUAK**



EUSKARA JENDEA:
36 euro



ARGIA TAKOA:
9 euro

EUSKARRIA:
5 euro



asteko

469

datua

herritar egon dira auzorik auzo egindako 7 billeretan eta danera 271 proposamen egin detsez udalari: gehixenak (120) zerbitzu saillekuak dira, 55 obretakua, 45 Udaltzaingurenak, 32 alkatezarenak eta 19 hirigintzakuak.



Gertatu ekimena abian

Martitzen goizian presentau eben Gertatu, udalak "ekosistema ekin-tzaille eta barrizailia sortzeko" abiarazitako ekimenak hainbat jarduera preparau dittu abandurako. Gaur bertan Pintxo Developer taldiaren topaketia egingo da 18.30xetatik aurrera Errebal kaleko Anardi tabernan. Pintxo Developer ekimenak bideojoko-zale-tuak daguazten leku guztietan alor horretako profesionalak, horretan jarduteko zale-tasuna dakenak edo esperientziak konpartidu nahi dittuen jostalarixak alkartu eta taldiak sortu nahi dittu. Informaziño gehixagorako <http://pintxodeveloper.com/category/encuentros/webgunian> sartu leike (Twitterren @pintxodeveloper).

Bestalde, abenduaren 17xan Bilbao Makers dalakuak erremintak, ezagutzak eta proiektuak konpartitzian oiñarrizten dan bere esperientzi-xa presentauko dau. Bilbon martxan jarri dan "sortzaille" komunitate horiek hainbat diziplinatak profesionalen bilgune bihurtu da eta, alkarlanari esker, diziplinen artean daguazten langak apurtu nahi dittu, "mundu profesionala eta

Dj Xaiborrek Urkizun dantzan ipiñi eban jendia. Eguardixan pintxo berezixak izan ziran Plazan. S. HERNANDEZ



Martitzeneko aurkezpenaren irudixa. SILBIA HERNANDEZ

amateurra batuta, mundu akademikua eta enpresa eta gizarte-mundua alkartuta". Bestiak beste fabrikaziño digitalerako teknologixa guztien inguruko taillarrak eskintzen dittue. Aurkezpena abenduaren 17xan izango da, Eibarko Armagintzaren Museuan, 18.30xetan.

Ekimenaren barri emoteko prentsaurrekuan azaldu ebenez, "udalak badaki enpresa-garapena barrikuntzaren eskutik datorrela eta, horregaittik, Eibarko enpreseri zuzendutako diru-laguntza ildo barrixa ipiñiko dau martxan enpresak, IK-4 Teknikerrek in batera, bere jardueran dittuan erronka teknologikuak diagnostikatu eta hórreri erantzun ahal izateko. Hórrek kostatzen dabezen 1.500 euruen % 90 pagauko dittu".

Opari Egun arrakastatsua

Opari Eguna goiburuari jarraituta aurreko zapatuan egindakuak arrakasta haundixa euki eben. Goizian merkatu plaza parian bertako basarrirarrak eta beste postuetan saldutako produktuekin pintxo berezixak preparau zittuan Oskar Trebiño Kultuko sukaldarixak, Aitor Elkoro eta ostalaritzako ikasliak lagunduta, Eibar Merkataritza Gune Irekiak Debemenekin alkarlanian antolatutako ekitaldixan. Preparatzen zittuenen barri emoten-eta Happy FM-ko Borja Rodriguez kazetarixak jardun eban goiz osuan. Eta



arratsaldian, Urkizuko parkian, DJ Xaiborrek ume eta nagusixak dantzan ipiñi zittuan eta, gaiñera txokolate eta bizkotxo ederrak jateko aukeria euki eban jendiak.

First Stop-ekuak greba mugagabian

Martitzen eguardixan udaletxe parian alkarretaratzia egifi eben First Stop-eko bihargi-

ñak, enpresak hainbat lantoki itxi eta bihargiñak kaleratu nahi dittuela salatzeke. Aurre-

ko astiaz geroztik greba mugagabian dagoz bihargiñak, eta eurak esandakuaren arabera, "kaleratuko dittuen bihargiñendako baldintzak negoziatzen amaiztuta, leikiana da aste honetan bertan kaleratziak gauzatzia". Estatu maillan 425 kaleratze eragingo dittuan amaiera-espeditentia aurkeztu eban Madrillen Bridgestone

multinazionalaren barruan dagan First Stop enpresaren jabiak. Euskal Herrixan 50 bihargin dagoz espeditentien barruan: 13 Bizkaian, 28 Gipuzkoan (tartian Eibarren, Otaola hiribideko lantegikuak) eta 9 Nafarruan. Sindikatuak salatu dabenez, "ezin leike holakorik onartu, enpresiak etekin mordua euki dittu-eta".



Mende laurdenaren ibilbidea errekonozitzen

Abenduaren 5ean udaletzeko Pleno Aretoan egindako ekitaldiarekin borobildu zuen ...eta kitto!-k 25. urteurrenaren ingurukoa. Orain dela mende laurdena aldizkariaren proiektua martxan jarri zuten Fernando Muniozguren, Aurora Baskaran, Begoña Bilbatua eta Begoña Azpiri izan ziren omenduak eta eurei eskainitako oroigarria jaso zuten Aurorak berak, Pili Ibargurenek eta Ainhitze Muniozgurenek (Fernandoren alargunak eta alabak), Begoña Agirrek eta Iñigo Urionaguenak (Bego Bilbatua zenaren amak eta semeak) eta Roberto Larreategik (sasoi hartako Euskara zinegotziak, Bego Azpiriren izenean). Beste oroigarri bat jaso zuen Jose Luis Gorostegik ere, proiektuan daramatzan urteengatik. Ekitaldiari ekitoko, Jesus Mari Gisasola "Trunboik" berak egindako bertsoa kantatu zuen eta aurrekoa ere dantzatu zen Ane Urkiolak prestatutako bideoa ikusi aurretik.

Aipatutako bideoa sarean jarri dugu dagoeneko, youtubeko kanalean, "Milla baxak" (#Kittok25Urte) nahi duen guztiak ikusteko aukera izan dezan. Aldizkariaren ibilbideari errepasoa egiteaz gain, ...eta kitto!ren ezaugarri nagusiak adierazi nahi izan ditugu eta, horretarako, hamar elkarriketa egin genituen.


argazkiak: LEIRE ITURBE



Ixa oin dala hillebete gure kalietan ixotutako argixak iragartzen eben moduan, badatoz Gabonak. Konturau orduko Olentzero eta Hiru Erregiak ate joka datoz eta etxeko txikixak egunotan berakatzu baiño fiñago dabiz, oparixak zabaltzian ikatza barik eurak eskatutako jolas eta bestelakuak topauko dittuela ziurtatzen. Eta laster oporretan egongo diranez, nahi beste jardueratan parte hartzeko aukeria eukiko dabe, ez aspertzeko.

Dena prest Olentzerori ongietorria emoteko

Gabonak ate joka dittugu eta martitzenian datozen egunetarako antolatutakuen barri emon eben Esther Kareaga Euskara-Kultura zinegotzixak eta Asier Lopez de Viñaspre Gazte-Haur sailleko koordinadoriak. Ikastetxietan urte bi eta sei urte bittarteko ume guztieri Olentzerori idazteko postalak banatu detsez eta abenduaren 2xaz gerostik Olentzerori idatzitako gutunak jasotzeko buzoiak Pegoran eta Portalean ipiñitta dagoz. Umiak abenduaren 23ra arte izango dabe gutuna bertara sartzeko aukeria. Gaiñera, abenduaren 18tik 20ra bittartian, hala eskatu daben eskoletan Olentzero bisitan juango jakue. Ikasten eta Untzaga jubilau etxekueri eskerrak emon nahi detsez bisita hórretan eskinduko daben laguntasunarengaittik. Eta abenduaren 24an, 18.00etan hasiko da Olentzeroren kalejiria, Pantxika astuak, Eibarko Kantuzaleak eta Kaleetan Kantuz abesbatzak eta Jainaga eta Musika Eskolako trikitilarixak lagunduta. Untzagan hasiko da eta Calbeton kalieren hasierian eta amaierian, Julian Etxe-



Olentzeroren postalak hillaren 23ra arte jasoko dittue buzoietan.

berriaren hasierian, Toribio Etxebarria kalieren hasierian eta erdialdian eta Untzagan geldiuniak egingo dittue kantatzeko. 19.00etan Olentzerok ume guztieri harre-

ria egingo detse eta aurten danendako oparixak banatuko dittu, bakotxari txokolatezko Olentzero bat emongo detsa-eta.

Gabonetako parkia frontoian

Azken urtiotan lez, Gabonetako parkia Astelena frontoian egongo da martxan abenduaren 26, 27 eta 28xan eta urtarrillaren 2, 3 eta 4an. Egun hórretan ohiko txiki-parkari eskulan taillarrak eta beste jarduera batzuk gehittuko detsez, baiña osterantzian asteburuetak martxan zabalduko da parkea: sarrera duan izango da Eibar Merkataritza Gune Irekiko (EMGI) dendaria eta tabernarixak erosketak egittian banatutako bonuekin (20 euro gastatzia-rron bono bana) eta, bestela, 3 euro ordaindu biharko dira. Goizian 11.00etatik 14.00etara eta arratsaldian 17.00etatik 20.30xetara zabalduko dabe eta urte bi eta 12 bittarteko umiak juan leikez, bakotxak gehixen jota 90 miñutu pasau leikez jarraixan bertatik urten barik (seguridade neurrixak betetzia-rran) eta begiraliak zainduko dittue.

SALMENTA LEKUAK

- Arriaundi
- Bolintxo
- Depor taberna
- Ego Gain taberna
- El Corte Ingles
- ...eta kitto!
- Echetto - Urkizu
- Guridi taberna
- Isasi okindegia
- Izadi loradenda
- Kultu taberna
- La Golosina
- Maria Ospital
- Mugika harategia
- Ogi Berri - Urkizu
- Otegi harategia
- Udal Euskaltegia
- Untzaga prentsa
- Valenciaga
- Zubi-Gain taberna

OTARREKO PRODUKTUAK

- | | | |
|--|---------------------------------------|---|
| - '40'ko 'OKI' telebista | - 'El Barco' txokolate zuria | - 'Qtonic' 4 tonikako Paka |
| - 'Micsa' ezkur-urdaiazpikoa | - Madari osoa ardotan | - 'Conde Osborne' Coignac-a |
| - Solomo trufatua | - '1880' txokolate-almendraturoia | - 'Level' Vodka |
| - 'Don Bernardo Oro' gaztaria | - 'La Higuera' piku bonboia | - 'Marques de Riscal' 150 Aniversario ardo beltza |
| - Salamankako ezkur-txorizoa | - 'Gorrotzategi' teilaik | - 'Albarino Martin Codax' ardo zuria |
| - Salamankako ezkur-saltxitxoaia | - 'C. Gourmet' turroi gogorra | - 'Julian Chivite 150 aniversario' ardo gorria |
| - Ahate 'Delicass' foie-a | - 'C. Gourmet' turroi biguna | - 'Gourmet Blancos D. O.' zainzuriak |
| - 'Martika' Confit ahate-izterra | - 'C. Gourmet' trufa-turroia | - 'D. O. Gourmet Frasco' piperrak |
| - 'Sierra Monesterio' ezkur-solomo zorroak | - 'Soles de Gredos' hajaldretxoak | - 'D. O. Catedral Frasco' alkabafak |
| - Ahate jamoia | - 'Gyulan' itsas fruituak | - 'Thes D origen Le Palais' estutxea |
| - 'Julian Martin' askatariko iberikoa | - 'Cascajares' esne-bildots hanka | - 'Jamaikako kafea |
| - 'Vasco Navarra' ardi gazta | - Gin Tonic-erako espezia estutxea | - 'Elfos' trufa zuria olio |
| - 'Sierra Monesterio' ezkur-jamoi zorroak | - Champagne 'Bruno Paillard' | - 'Elfos' trufa beltz olio |
| - Micuit 'Rougie' Gourmet | - Champagne 'Rosse Ruinari' | - 'Gourmandises' kokoa |
| - 'Dos Cafeteras' gozokiak | - Champagne 'Moet Chandon' estutxea | - 'L' Himalayen' gatz larrosa |
| - 185 gramoko Chaika lata | - Eskozialako 'Chivas Regal' whisky-a | - 2 'L'ardin' confit |
| - Pikillo piper saltsa. 278 ml | - 'Matusalem' rona. 23 botila. | - 2 'Lafitte' confit |
| - 'El Barco' txokolata | - 'Plymouth' Ginebra | |

BARIXAKUAN
19.30-20.30
T. Etxebarrian

ZAPATUAN
12.30-13.30
Untzagan



Anbulatorixo pareko tiobibua aurreko astian zabaldu eben. Urkizun hiru barraka gehixago ipiñiko dittue, baiña datorren asteko barixakutik aurrera egongo dira martxan.



Abenduaren 7az geroztik zapatuetan zabalitzen daberen Astelena frontoiko txiki-parka, Gabonetan ezeze, zapatuero zabal-

duko dabe bixar eta hillaren 21ian, urtarrillaren 11, 18 eta 25ian, otsaillaren 8, 15, 22 eta 29xan eta apirillaren 5 eta 12xan.



Astelena zapatuetako txiki-parkaren eskintza haundituko dabe Gabonetan.



50 umek antorbaxero jardungo dabe.

Barrakak

Umiak kalia ederki pasatzeko aukeria eukiko dabe EMGI-xaren eskutik: anbulatorixo pareko tiobibua aurreko astiaz geroztik martxan dago eta bonuarekin duan ibilli leike hillaren 13, 14, 16, 17, 18, 19, 20, 21, 23, 24, 26, 27, 28, 30 eta 31n. Bestela, hillaren 15, 22, 25 eta 29xan eta urtarrillaren 1etik 6ra bittarteko egunetan pagau egin biharko da. Eta Urkizun hiru barraka gehixago ipiñiko dittue, baiña datorren astian. Hórretan bonuarekin duan ibilli ahal izango da hillaren 20, 21, 23, 24, 26, 27, 28, 30 eta 31n eta hillaren 22, 25 eta 29ian eta urtarrillaren 1etik 6ra, barriz, txartela pagau egin biharko dabe.

Errege Kabalgatia

Eta Errege Kabalgatia urtarrillaren 5ian

egingo da. Aurretik, 16.30xetan hasitta Ipurua Gimnasia Erritmika, Ipurua dantza garaikidia eta Eibarko Balleta taldietako ikasle nagusixak (75-80 bat umek) erakustaldixa eskinduko dabe Ipurua kiroldegixan (atiak 16.00etan zabalduko dittue). Kabalgatia 19.00etan Untzagan hasiko da eta Urkizuraino jaitsi eta gero, atzera be Untzagara igoko da, 20.00etan udaletxian umieri harrera egitteko. Kabalgatan, Eibar Triatloi taldeko erregiekin batera Lambretta Klubekuak, Cielito Musika Bandiak eta antortxak eruango dittuen 50 bat umek hartuko dabe parte.

KOMUNITATEEN ADMINISTRAZIOA

*30 urte
Eibarko
bizilagun—
erkidegoekin
konprometitua*



Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe



**ESPERIENTZIAK
EMATEN DUEN KONFIANTZA**

www.euki.com

Tel: 943 200 358



Funeraria Ehorztetxe

Mugica

EIBAR



**Beilatokia
Funeuskadi Eibar:
Otaola, 27**

ELGOIBAR



**Beilatokia:
SIGMA Industrialdea
(Olasoko hilerriaren ondoan)**

**Bulegoa Eibarko
erdialdean**



24 orduko zerbitzu iraunkorra

943 20 19 51

www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze
Taldea

GRUPO
funeuskadi

Bigarren urtez jarraian, Uni Eibar-Ermuko kirol jarduera ziklokoek osasunaren aldeko martxa antolatu dute: datorren asteko eguenean, hilaren 19an, Untzagatik oinez abiatuko dira, parte hartzera animatzen diren guztiekin batera, Urkizuraino jaitsi eta berriz Untzagara igotzeko. Hiru kilometroko ibilbidea beteta, ganoraz elikatzeak eta gorputza piskat astintzeak gure osasunari zenbaterainoko mesede egiten diote gogorarazi nahi diete gazte zein helduei.

- Zergatik antolatu duzue "Mugi zaitetz zure osasunaren alde" martxa?

Bizimodu osasuntsua izatearen garrantziaz kontzientzia hartzea bilatzen dugu. Horretarako hainbat jarduera antolatu ditugu: 10.30etan Untzagan batu egingo gara. Antolatu dugun logotipo lehiaketako lanak jaso eta Urkizuraino jaitsiko gara, Untzagara bueltatzeko. Denera 3 kilometro egingo ditugu oinez. Untzagan osasunari buruzko esketx lehiaketa, "Bizimodu osasuntsua" antzezlana, aerobic klasea eta lehiaketetako sari-banaketa egingo ditugu.

- Horren beharrezkoa da bizimodu osasuntsuaren aldeko aldarria?

Azken ikerketen arabera, gaur egungo gazteak lehen aldiz euren gurasoak baino bizitza laburragoa izango dute. 2010. urteko datuei begiratu, munduan 42 milioi pertsonak gehiegizko pisua zuten eta horietatik 35 milioi herrialde garatuetan bizi ziren. Espainian hiru lagunetik batak beharko lukeena baino gehiago pisatzen du eta azken 25 urteotan larregizko pisua dutenak %7 izatetik %17 izatera pasatu dira. Gazteen artean

portzentaia %20koa da. Datu horiek sedentarisismoaren, osasungarriak ez diren bizitza ohituren eta teknologia berrien ondorio zuzena dira.

- Paradoxikoki, inoiz baino kirol gehiago egiten omen da, behintzat kiroldegi eta gimnasioetan...

Baina ez da beti modu egokian egiten. Gazte askok bizkor muskulatu nahi dute eta, horretarako, anabolizante, dieta desegokiak eta bestelako astakeriak egiten dituzte. Horrelako gehiegikeriak ez dira onak eguneroko bizitzan. Gainera, oso gazte hasten dira asko eta, gorputza oraindik erabat garatu barik egotean, muskuluak ez dio hezurriari behar beste luzatzen lagatzen eta txiki geratzen dira.

- Orduan, zer gomendatzen duzue bizimodu osasuntsu izateko?

Elikadura orekatua, egunero jaten dugunaren %50 frutek eta barazkiek osatu beharko lukete. Eta horri laguntzeko ariketa fisikoa, ez da aparteko ezer egin behar, nahikoa da orain dela urte batzuk arte egiten genuen lez eskailerak oinez igotzea, piskat ibiltzea, automobila horrenbeste ez erabiltzea...



Kim Rubio & Ibon Romero
(UNI EIBAR-ERMUA)

"Garrantzitsua da osasuntsu bizitzea: egunero zaintzekoa"

MULTIABENTURA
UDALEKUAK
NAFAR PIRINIOAN

URRATSAK
udalekua

www.urratsak.com • info@urratsak.com

Aire berriak!

Estaziño, 4
943 254776

Rhòl Estilistak



GABONETARAKO erosketa GIDA

TXUKUNA

E. Garate, 1
943 82 13 08

- Barruko erropa eta pijamak (ume eta helduak)
- Emakumeen erreduktoreak (aukera handia)



- Erlojuak
- Zilarra
- Artisautza
- Bitxikeriak

Pitxiak

Zuloagatarren, 9
943 20 17 40



**zorionak
eta urte
berri on!**

- Opariak egiteko aukerarik onena

J. Etxeberria, 13
943 70 02 30

- Laser depilazioa
- Masajeak / Osteopatia
- Luzarorako manikura
- Gel azazkalak
- Oparirako bonoak
- Aurpegi eta gorputz tratamenduak
- Mikropigmentazioa



Bidebarrieta, 5
943 20 15 47



Zuloagatarren, 1
943 20 22 33
valenciagaonline.com

- Emakume eta gizon moda
- Lentzeria eta osagarriak

Valenciaga



San Juan, 1
943 20 33 29

- Landareak
- Zentru naturalak eta lehorrak
- Etxerako zerbitzua

mahoiak



- Lana eta Mendia lotzen ditugu
- Tresna eta ekipo bereziak
- Arropa pertsonalizatua

Barakaldo, 17
943 82 07 27



zorionak!



Zuloagatarren, 2
943 20 09 91

gratzina

Luci

Bidebarrieta, 60
943 12 15 62

- Mozketak
- Koloreak
- Tratamenduak
- Makillajeak
- Manikurak...
- ... Ondo sentitzeko behar duzun guztia
- Opari-bonoak ditugu



- Pantyak
- Galtzerdiak
- Mertzeria

KINKILTA

Bidebarrieta, 16
943 70 23 29



Bidebarrieta, 18
943 20 84 41

Iaguinda



- Etxeko batoiak
- Ume eta helduentzako pijamak
- Galtzerdiak
- Mukizapiak
- Barruko erroa

Mota guztietako artileak eta hauek lantzeko ikastaroak

San Agustin, 2
943 20 40 63

ASTIGARRAGA



- Mendirako behar duzun guztia

Etorri zaituz ikustera!



Mara Mara

Arragueta, 10 943 70 20 63



Guby

Birjiñape, 1
943 20 28 33

Zuloagatarren, 9
943 943 20 12 40

zorionak!

*La tienda
de Pauda*

Zuloagatarren, 7
943 70 15 46



Ikusimakusi

Calbeton, 8
943 20 08 68
ikusimakusi.com

- Ume eta gazte
moda (0 urtetik
16ra arte)



Ditare **Urkizu, 7**
943 12 73 21



- Gizon eta emakumeendako barruko arropak
- Azpikogonak - Mukizapiak - Mertzeria
- Emakumeen bainujantziak
- Berezitasuna taila handitan!



baglietto

Errebal, 21
943 20 19 22

- Opariak
- Etxerako
osagarriak
- Pinturak

- Ikusmenaren
graduazioa
- Audifono
digitalak
- Lentilla
progresiboak;
umeendako...
- Eski-maskarak
- Eguzkitako
betaurrekoak



GU BY

J. Etxeberria, 2
943 20 15 51

- Gusto eta adin
guztietako moda



Ego-Gain, 2
943 70 14 08





Selene

J. Etxeberria, 6
943 20 09 07

- Moda
- Oparietarako osagarriak

Zorionak eta eskerrik asko zuen harrerarengatik

Kalkachi 
in your closet



Bidebarrieta, 12

943 03 36 58

Mahatsondo

Isasi, 19
943 20 09 07

- Ardorik onena konpainia onean edaten dena



Bidebarrieta, 16
943 04 39 57

Gabon hauetan usain ona oparitu

Anuxai



- Perfume ezagunen parekoak, aire-freskagarriak eta mikadoak



Bidebarrieta, 28
943 20 79 73

- Pastelak, "txikiak", pastak, rellenoak, bonboiak, tartak...
- Enkarguak etxera



ERRETZEARI
UZTEA BAINO
OPARI HOBERIK
EZ DAGO

PS



ZIGARRO ELEKTRIKOEN LEHEN EUSKAL MARKA

PRESTIGE SMOKE

Toribio Etxeberria, 22. T. 943 04 36 09

GABON



zoriontsuak!!!



Harixa Emoten literatura-tertuliaren barruan Arantza Urretabizkaia 3 Mariak liburuari atera zioten mamia joan den martitzeneko saioan. Hiru emakume adinduren gorabeherak kontatzen ditu Urretabizkaia orain dela ia hiru urte argitaratutako liburuan, baina zahartzaroari buruz baino gehiago adiskidetasuna, memoria edota tolerantzia moduko gaien inguruko hausnarketa egin nahi izan du idazleak.

ARANTZA URRETABIZKAIA

“Zahartzeko modu berri bat asmatu behar dugu”

- Liburuan zahartzaroari nolabaiteko ikuspuntu baikorra eman nahi izan diozu, zahartzeko modu bakarrik ez dagoela azpimarratuz.

Zahartzaro guztiak ez dira berdinak, gaztaro guztiak desberdinak diren bezalaxe. Zahartzea meritua da, ez baita edonor adin horretara ailegatzen. Kontua da orain nola zahartu nahi dugun erabakitzeo aukera dugula, ez gaituela inolako legeak ezertara behartzen. Hori bai, zahartzeko modu berria asmatu egin behar dugu. Zantzuak daude, han eta hemen, baina ez, oraindik, eredu berri bat.

- Nolako zahartzarora nahiko zenuke zuretzako?

Nik ez dut aurretik geratzen zaidan denbora irakasten pasa nahi. Ezer gutxi dut nik irakasteko. Asko, ordea, ikaste-

ko. Benetan sinesten dut nire bizitzaren hoberena etortzeko dagoela.

- Zure lanetan emakumeek pisu handia izaten dute, zergatik?

Gizartearen erdia gara, baina oraindik arraroa egiten da gure protagonismoa, etxetik kanpo. Nire aspalditxoko eleberriri batean (Saturno) gizona da protagonista. Zerbaitetan sinesten badut, berdintasunean da, gizon eta emakumeon arteko eskubide berdintasunean.

- Zer iruditzen zaizkizu horrelako literatura-tailerrak?

Gure literatura urrezko aroan dago. Eta urre horren artean, irakurle taldeak

dira puntaren punta. Nire belaunaldi-koak letretan hasi ginenean ez genuen ezer, ezta irakurlerik ere. Orain idazleok irakurleak ditugu eta, are gehiago, irakurle antolatua.

- Zein proiektutan diharduzu une honetan?

Momentu honetan fikzioa ez den zerbait dut eskuartean, garai baten lekukotasuna izan nahi duen zerbait.

- Durangoko Azokak marka hautsi du bisitari kopuruari dagokionez. Nola ikusten duzu euskal literatura, eskaintza zein kontsumo aldetik?

Esan dudan bezala urrezko aroan gaudela. Bostehun urtetan ez dugu gaurko egoera ezagutu. Orain, baieztapen horrek galdera bat dakar: zer dator urrearen segidan? Idazleon eta irakurleon eskuetan dago.

“Ezer gutxi dut irakasteko; asko, ordea, ikasteko”



Antxon Narbaizak dinamizatzen ditu literatura-tertuliak. Urtarrilaren 7an Jokin Muñozen “Antzararen bidea”-ren txanda izango da. SILBIA H.

Ruben Lanz eta Ainhoa Sanz garaile Bolunburu Memorialean

Domekan Olabeko zelaian jokatutako 64. Bolunburu krosean, Lanz anoetarra eta Sanz donostiarra izan ziren garaile senior mailako probetan. Aipatutako proba horietan Jonan Rodriguez eta Aitziber Urkiola izan ziren gure herriko ordezkari onenak, mutiletan Eibar-ko Klub Deportiboa bigarren izateaz gain. Bestelako probetan honakoak izan ziren irabazleak: Cipriano Burcio (helduak), Joseba Diaz (juniorrak),

Yohanes Merino (kadeteak), Anartz Artola (infantilak) eta Gaizka Cortes eibartarra (alebinak) gizonezkoetan; emakumezkoetan, bestalde, Carmen Perea (helduak), Sara Gomez (juniorrak), Usua Ostolaza (jubenilak), Leire Lopez (kadeteak), Naia Saez eibartarra (infantilak) eta Hiart Iburguren (alebinak).

Klub Deportiboko taldeek hainbat mailatan nagusitu ziren: horrela, onenak izan zi-



Betiko moduan, adin eta maila ezberdinetako hainbat proba jokatu ziren Olabe zelaian.

ren mutiletan kadeteetan (Teran, Egurrola, Egidazu eta Gu-tierrez) eta alebinetan (Cortes, Santiago, Kareaga eta Etxebe-

rria) eta nesketan infantiletan (Saez, gisasola, Alberdi eta Martinez). Eguraldia lagun izan zen domeka goizean.



Urbateko igerilariak bikain Espainiako neguko txapelketan

Bi ordezkari izan ziren Castellonen jokatutako neguko txapelketa horretan: Markel Alberdi eibartarra eta gure herriko taldearekin diharduen Jon Mujika bergararra. Alberdik, parte hartutako proba guztietan marka onak egiteaz gain, brontzezko domina eskuratu zuen 200 librean eta distantzia bereko lau igerilariz osatutako erreleboetan, azken proba horretan Euskal herriko marka eginez. Gauza bera egin zuen 100 libreko proban (5. postuan sailkatu zen). Mujikak bizkar estiloko probetan hartu zuen parte (50, 100 eta 200 metrotan) eta brontzetik gertu izan zen Alberdirekin batera egin zuen 4x100 libreko errelebotan.

250 lagun San Andres judo torneoan

Ipurua kiroldegian jokatutako torneoaren 39. edizioan 250 neska-mutil izan ziren parte hartzen, hainbat tokitik etorritako ordezkariekin. Kalamua klubeko ordezkariak bikain jardun zuten: urrezko 15 domina, zilaretzko 12 eta brontzezko 10. Euren artean, infantil mailako Gipuzkoako txapelketan gure herria ordezkatu

duen Unai Soraluze, Asier Nuñez, Asier Sebastian, Javier Criado eta Roberto Riaño nabarmendu ziren. Emakumezkoen nazioartekoan 150 parte-hartzaile izan ziren eta Nekane Muguruza erraz nagusitu zen bere pisuan (9.a izan da eibartarra Errumanian jokatutako jiu-jitsuko munduko txapelketan).

Eibar eskubaloia lider Ligan eta aurrera Euskal Kopan

Bost puntuko aldeaz nagusi dugu Somos Eibar Eskubaloia estatu mailako 1. mailan. Azken jardunaldian Santoñari 32-22 irabazita, lehenengo itzulia amaitzeko partidu bakarra geratzen denean (bihar, 16.30etan Zumaian Bigara Pulporen aurka jokatuko duena) gero eta sendoago daude Fernandezek mutilak. Neurketa euren eskuetan izan zuten eibartarrek hasieratik (18-10 atsendenaldian).



Zumaiako Pulpokoak ez dira aurkari errazak izango eibartarrentzat.

Euskal Kopan, bestalde, Trapagarani 22-29 irabazi zioten eta finalerdietan daude dagoeneko, gorago-ko mailan diharduten Zarautz eta Barakaldorekin batera; laugarrena Tolosa eta Bidasoaren arteko lehiatik aterako da eta hor-ko irabazlea izango da eibartarren aurkaria.



Eibar-Deportivo klubari laguntzeko eguna etzi

Domeka eguerdiko 12.00etan Ipuruan jokatu-ko den Eibar FT eta A Coruñako Deportiboaren arteko partidua klubari laguntzeko egun erdia izendatu dute. Hori dela-eta, bazkideek ere sarrera ordaindu beharko dute (10 euro)



laz maila irabaztearen ondoren, lehenengo denboraldia du Garitanok 2. A mailan.

eta gehigarri bat ateratzeko aukera izango dute, beste 10 euro ordainduta. Sarrerak erosteko, interesatuak gaur Untzagako Jubilatuen egoitzatik pasa daitezke (16.00-20.00) eta bihar Ipuruako bulegotik (10.00-13.00).

Entrenatzailea aukeratzen

Eibar FT-ko 75. urteurreneko hamaikako ideala osatu ondoren (aurreko astean ezker hegalekoa aukeratu zuten, Aranegi, Sarasketa, Izeta, Toño, Hidalgo eta Barkeroren artean), oraingoan urte horietako entrenatzaile onena aukeratu beharko dute bazkide eta akzio-dunek. Antonio Corral, Mikel Etxarri, Blas Ziarreta, Periko Alonso, Alfonso Barasoian, Manix Mandiola, Jose Luis Mendilibar eta Gaizka Garitanoren artean aukeratu beharko da eta botoa 1940-2015@sdeibar.com helbidera bidali. Garitano, gainera, 2. A mailako azaroko entrenatzaile onena izendatu dute.

Astigarraga hiru-txirloko Euskadiko azpitxapeldun

Ate-atean geratu zen Asola-Berriko ordezkaria San Migueleko Angel Ibarluzearekin lehenengo postuan berdinduta: azkenean parrekoe-tan erabaki zen txapelduna eta Bittor Astigarragak amore eman behar izan zuen Euskadiko txapelketaren 24. edizioan. Nagusien mailako txapela irabazi zuen eibartarrak eta izan zen beste saririk Asola-Berrikoentzat: taldeka Asola-Berri B erraz nagusitu zen, sei txirlo-aldeaz, eta Ibai Diez Gipuzkoako bolari onena izan da 2013an.



Arria V.a eta Txikon nagusi Gipuzkoa Poliklinika aizkolarari torneoan

San Andres egunean jokaturako aizkolarien arteko Gipuzkoa Poliklinika sarian, helduen mailan jardundako hiru bikoteek maila bikaina erakutsi zuten eta minutu bateko tartean amaitu zuten euren lana, izandako berdintasunaren adierazle. Bestalde, ikuskizun paregabera eskaini zuten, inolako babesik gabe jardun baitzuten beharrean euria botatzeari lagatzen ez zion bitartean. Hori izan zen goitik beharera, hori! Gazteen artean, bestalde, Ezpeleta eta Vicente Larrea eta Gisasola baino gehiago izan ziren.

Ipuruako gimnastak nagusi Utebon

Atzotik Granadan hasitako Espainiako txapelketara moralez ondo jantzita joan zen gimnasia erritmikako Ipuruako 1. mailako taldea Uteboko torneo bereganatu eta gero. Canario Club Odisea Espainiako txapel-duna han bazen ere, Irati Yarza, Lorena Holgado, Jennifer Hernandez, Arrate Garcia eta Marta Alvarezek osatutako boskotea podiumaren goi-goira igo zen. Granadan, bestalde, Tania Nagornaia eta Susana Prietoren aginduetara diharduen taldea 1998tik hona duen 1. mailari eusten ahaleginduko da. San Andres torneo otarraren zenbaki irabazlea 1991 izan da.



berriak

ZOKKETA IPURUAN

Astelehenean, hilaren 16an, Ipurua kiroldegiko prentsako gelan egingo da instalazioen urteko zozketa, ordena honi jarraituz: 19.00etan, tenisa eta foballa (Unbe) eta squash-a eta areto-foballa (Kiroldegia); 19.15etan, frontoia. Egun berean, baina Unbe Kirolguneko bilerako gelan, padelaren zozketa egingo da, 20.00etan hasita.

SQUASH-A

Eibarko Klub Deportiboko Alberto Ferreirok irabazi zuen Euskal Ligako Sestaoko Benedikta torneoa. Finalean euskal-nafar zirkuitoko onenen artean dagoen Liam Kane britainiarrari gailendu zitzaion. Eibartik bederatziz jokalaria joan ziren eta Jon Losadak 13. postuan amaitu zuen.

ERRUGBIA

Eibar Rugby Taldeko nagusiek Uribealdearen (Kakarraldo eta Mungiaren artean sortutako taldea) zelaian jokatuko dute bihar, arratsaldeko 16.00etan. Neurketa zaila izango da.

Klub Deportiboko argazki erakusketa

Klub Deportiboko Argazkilari-tza Taldekoek, urtero lez, gabonen bueltan argazki erakusketa zabalduko dute Portalean. Gaur 19.00etan erakusketa aretoan inauguratuko duten erakusketan Virginia Arakistain, Pedro Mora, Juan Antonio Palacios, Jose Luis Irigoien, Jose Luis Martinez, Zigor Astigarraga, Vicente Eizagaetxeberria, Jose Vila, Enrique Albistegi, Jon Jimenez, Eduardo Magunazelaia, Enrique Lorenzo, Jose Manuel Lucena, Juan Ig-

nazio Aizpurua, Pedro Arriola, Mikel Orozko, Javier Pozuelo, Rafa Sola eta Jose Valderrey argazkilarien lanak ikusteko aukera izango da urtarrilaren 5era arte, martitzenetik domekara 18.30etatik 20.30etara.

Horrez gain, Deporreko argazkilariak ohiko martxari jarraituta abenduan argazki erakusketak antolatu dituzte tabernetan: Joan Buxoren argazkiak Ambigun daude ikusgai eta Portaleko tabernan, berriz, Enrique Lorezoren argazkiak



Urtero lez, gaur zabalduko dute Gabon bueltako erakusketa. LEIRE I.

ikus daitezke. Eibartik kanpora, Juan Antonio Palaciosen lanak Hondarrribiko Modotti Tailerrean ikus daitezke (hilaren 24ra arte) eta Donostian, Ulia-

ko Aterpean, azaroaz geroztik ikusgai dagoen Jose Luis Irigoienen "Baltiko" erakusketa abenduan ere bisitatzeko aukera izango da.



Bartrak, Aguilera eta Bastidak osatut dute Trio Medianoche.

Los Panchos gogoan

Hego Amerikako doinuek betidanik jarraitzaile ugari izan dute gurean eta zaletasun horrek elkartu zituen orain dela zazpi hilabete Pedro Bartra (lehen ahotsa eta gitarra), Bernardo Aguilera (bigarren ahotsa eta rekintoa) eta Jesus Mari Bastida (hirugarren ahotsa eta gitarra), Trio Medianoche. Honezkeron hainbat kontzertu eman dituen hirukoteak Los Panchos talde mitikoari eskainitako kontzertua emango du abenduaren 20an 20.30etan Coliseo antzokian eta emanaldia biribiltzeko Los Tres Reyes taldearen boroak ere abestuko ditu. Sarrerak 10 euro balio du.

Arrabueta Fest


Datorren asteko barixakuan, hilaren 20an Punto y Aparte diskotekak Arrabueta Fest hartuko du 23.30etatik aurrera. Hiru urteko etena eta gero, Arragueta Fest kolektiboak laugarren San Undress Party-a antolatu du: Arrabueta Fest. Kartelaren goiburua Las Tea Party eta Dj Karba eibartarra dira. Karba hainbat lekutan jardundakoa da (Suberoa, EzDok, jaialdiak...). Musikarekin batera hainbat sorpresa iragarri dituzte. Jaia antolatzen arduratzen direnen helburu nagusia "Eibarko gazteen ideia eta sorkuntzari bultzada ematea da, beste musika estilo batzuetaz gozatzea ahalbidetzeko jaiak antolatuta, beste musika estilo batzuetaz gozatzea ahalbidetzeko. Bi jai antolatu genituen Matsariako tailer batean, eta beste bat Punto y Aparte diskotekan. Bertan izango da laugarren hau ere". Sarrerak aldeztatik aurretik erosita 6 euro balio du eta egunean bertan leihatilan erosita 8 euro ordaindu beharko dira. Txartela aldeztatik aurretik erosi nahi duenak zuzenean Ez Dok, Katu Kale edo Tas-Tas tabernetara jo dezake eta, bestela, interneten www.ticketea.com/arragueta-fest helbidean eros daitezke.

#ARRABUETA

ABENDUAK 20
23:30
PUNTO Y APARTE

Salmenta puntuak / Puntos de venta:
<http://www.ticketea.com/arragueta-fest>
 •EZ DOK (Toribio Etxeberria)
 •KATU KALE (Zuloagaitarran)
 •TAS-TAS (Julian Etxeberria)

Prezioa / Precio:
 Aldez aurretik / Anticipada: 6 €
 Taldian / En taquilla: 8 €



Dead Bronco Ez Dok-en

Zapatu gaurdian Dead Bronco Getxoko taldeak kontzertua emango du Ez Dok tabernan. Boskoteak bigarren diskoa prestatzen dihardu eta datorren urtean biran joan aurretik Eibarren jo nahi izan dute. Taldeak BBC Music Video Festival-ean oihartzun handia izan zuen eta iazko Cinemad-ean bideo-klip onenari saria eskuratu zuen taldeak.

Karmelitaseko organoaren 50. urteurrena

Bihar 20.00etan kontzertu berezia hartuko du Karmengo Amaren elizak, bertako organoak 50 urte bete dituela ospatzeko antolatu duten emanaldian. Efemeridearen harira, hainbat organo-joleren parte-hartzea izango duen kontzertuan beste instrumentu batzuk eta Sostoa abesbatzak ere hartuko dute parte, honako egitarauari jarraituta: lehen zatian Javier Epeldek (organoa) "Estibalitz" (Sabin Salaberria) eta "Tocata y fuga en Re Menor" (J.S. Bach) eskainiko ditu; Iñaki Orbegozok (tronboia) eta Juan Luis Agirrek (organoa) "El cazador furtivo" (Weber) joko dute; Ainhoa Urkizuk (klarinetea) eta Juan Luis Agirrek (organoa) "Agur Euskal Herria" (Iparragirre); eta Iñaki Orbegozok (tronboia), Ainhoa Izagirrek (klarinetea) eta Juan Luis Agirrek (organoa) "Cielito" (Jesus Zuloaga) eskainita agurtuko dute lehen zatia. Bigarren zatian Iñaki Zarrabe organo-joleak Sostoa abesbatzarekin batera jardungo du: "Choral Jesus bleibet, meine Freude" (Cantata 147, J.S. Bach), "Agnus Dei" (Missa in honorem S.Gabrielis archangel, Jesus Guridi), "Laudate Dominum" (Vesperae solennes de confesore K.339, W.



A. Mozart), "Vergin tutto amor" (F. Durante), "Siehe! Wir preisen selig" (Paulus oratorioa, F. Mendelssohn) eta "Marcha" (Lohengrin, R. Wagner).



Oier San Martin, Maialen Odriozola eta Esther Kareaga. SILBIA HERNANDEZ

JSM beka Maialen Odriozolarendako

Udalak, Udako Euskal Unibertsitatearen laguntzarekin esleitutako Juan San Martin beka Maialen Odriozola zumaia irabazi du. Edizio honetarako proposatutako ikerketa esparrua kazetaritza izan da eta beka "Eibar.org blog komunitatea: hurbilketa bat atariaren analisiaren bidetik" izenburuko proiektuarekin eskuratu du. Deialdira hainbat eskaera aurkeztu dituzte eta epaimahaiak aho batez erabaki du beka eibar.org ataria aztertzeko proiektuari ematea, Oier San Martinek azaldutako lez, "atariak urteetako ibilbidea dauka eta beste hainbat herrirentzat eredu izan da". Ikerketa burutuko

duen Odriozolak kazetaritza ikasi du eta multimedia komunikabideetan masterra dauka. Aurreko hilaren 29an bekaren hitzarmena sinatu aurretik eskerrak eman zituen, "bekak komunitatearen inguruko analisia egiteko bidea emango didalako. Ikerketa ez da soilik blogetara mugatuko, atalak ere aztertuko ditut horretarako teknika kuantitabo eta kualitatiboak erabilia".

laburrak

USTEKABEREN OTARRA

Ustekabe fanfarreak Gabonetako otarra zozketatuko du aurtengo Gabonetan. Sariduna abenduaren 22ko Loteriaren zenbakiarekin bat egiten duena izango da eta rifak Eibarko hainbat taberna eta dendatan eros daitezke (euro bat balio dute). 2015ean Ustekabek 15 urte beteko ditu eta urteurrenerako dirua biltzen hasi dira.



BIDEO-FORUMA

Etorkinen Nazioarteko Egunaren harira, datorren asteke eguenean, 18.30etan, Portaleko areto nagusian "Quiero ser italiano" komediaren emanaldia eta debatea antolatu dute. Sarrera librea da. Pelikula bigarren belaunaldiko etorkinen integrazioari buruzkoa da eta hainbat gai debatitzeko aukera egongo da.



Barrena, 44
943 033 658


**BODEGA
VINAGRE**

**Pintxoak
Razioak
Ogitartekoak**

**Egunero
07.00etatik zabalik
Asteburuetan
10.00etatik aurrera**

MUGICA
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN
ERREFORMAK ETA ABAR...
HANSGRÖHE KANILEN BANATZAILA
ZORU ERRADIATZAILA
EGUZKI-ENERGIA



Egiguretarren, 18

Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24

○ **"Euskarazko tesi bila gabiltza"**

Ahalegin handiak egiten badira ere, gutxi dira oraindik aurkezten diren tesiak euskaraz. 1996an aurrenekoa aurkeztu zenetik, 448 egin eta defenditu dira euskaraz. Guzti hori kaleratu zuten azaroaren 19an UELK unibertsitatea.net atariaren eskutik antolatutako twitter bidezko lehiaketan. Alor desberdinetako ikerlarien lanak gizarteratzea eta jendeari hurbiltzea zen lehiaketaren helburua; bakoitzak sei mezutan aurkeztu behar zuen bere tesia. 2011-2013 urte bitartean aurkeztua. Lehiaketarako zedamitu den epean, 82 euskarazko tesi aurkeztu dira, guztizkoaren %8 inguru.

euskararen txokoa

"Benan eta Begigorri Munstroa" musikala

Cielito Musika Bandak eta Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako ikasleek "Benan eta Begigorri Munstroa" izenburuko ikuskizuna eskainiko dute Coliseoan domekan (lehen emanaldia 11.30etan izango da eta bigarrena 13.00ean). Taula gainean 110 ikaslek eta 40 bat musikariek jardungo dute, Bergarako Musika Eskolako Valen Moñuxek zuzendutako musikalean. Michael Hurd-en "Jonah-man jaz" lanaren euskerazko bertsio honetan arrantzatzen duten guztia lapurtzen dien Begigorri Munstroarekin belurtuta bizi diren herri txiki bateko biztanleen istorioa kontatuko dute: "Herrian ez dakite zer



egin. Batzuk onena herritik joatea dela pentsatzen dute, beste batzuk indarkeria erabiltzearen alde daude eta herriko agintariek, berriz, berba asko egin arren ez dute ezer konpontzen... Gauzak horrela, agure zaharrenak Benan izeneko pertsonaiaren bila joateko aholkatzen die, baina Benan-en super-

botereak baino zerbait gehiago beharko dute irabazteko...".

Ikuskizun berezi honetaz gain, Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako Gabonetako kontzertua emango dute urtero lez: abenduaren 18an (eguztenez) 20.00etan izango da, San Andres elizan.

Bitxigintza tailerra museoan


Eibarko industria ezagutu eta sormena pizteko bitxigintza tailerra antolatu dute Eibarko Armagintzaren Museoan. Tailerretan ekoiztutako malguki, kate, zirindola, azkoin eta bestelakoetatik abiatuta bitxi ikusgarriak sortzen ikasteko aukera egongo da bihar 17.00etan eskainiko duten tailerlean.



Izen-ematea bihar bertan egin beharko da, Museoan, 16.00etan. Prezioa euro bikoia da (materiala barne) eta hilaren 21ean eta 28an ere saioa egingo dutela aurreratu dute.

○ **Euskara hutsezko lehen argitalpenak**

Agusti Zahoren 1848ko Uskal-Herriko Gaseta izan zen euskara hutsezko lehen argitalpena, baina ez zuen jarraipenik izan: pare bat zenbaki argitaratu zituzten. Lehenengo astekari iraunkorrak Ipar Euskal herri argitaratu ziren: Le Réveil Basque eta Eskualduna, 1887an. Resurreccion Maria Azkue da euskarazko prentsako izen nabarmenena. Bi astekari abiarazi zituen: Euskalzaile eta Ibaizabal. Garrantzitsuak dira alderdien menpe ez zeudelako: euskara bultzatzea eta euskaraz argitara zitekeela frogatzea zen helburua. Guzti hori jaso du Javier Diaz Nocik bere liburu berrian.



Millan Salcedo Coliseoan

Gaur Millan Salcedo (Martes y Trece ohia) aktore komikoa Eibarraren egongo da, Coliseo antzokian, "De verden cuando" umore-ikuskizuna eskaintzen (20.30etan). Sarrerak 15 euro balio du eta aldeztu aurretik erosteko aukera izango da, ohiko bideei jarraituta.



Revolver kontzertuan

Jai Productions-ek antolatuta, Revolver taldea zuzenean ikuzteko aukera izango da Coliseoan, hilaren 27an, 22.30etatik aurrera, Madrilgo Joy Eslava aretoan grabatutako "Enjoy" diskoa aurkezteko kontzertuan. Sarrerak www.jai-productions.net helbidean eta Portalea, Birjiñape, Trinkete, Arno, Terraza eta Caserio (Eibarren), Xagua (Ermuan) eta Gambrinus (Durangon) talbernetan eros daitezke, 25 eurotan.

laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, OLATZ, eguaztenian hamar urte bete zenduazena-eta. Patxo haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, OLATZ, hillaren 5ian bi urte egin zenduazelako. Etxekuen partez.



Zorionak, AINARA, atzo hiru urte egin zenduazena-eta. Amatxo, aitxitxa eta amamaren partez.



Zorionak, JUNE, martitzenian zazpi urte bete zenduazena-eta. Muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, MAIA, hillaren 7xan lau urte bete zenduazena-eta. Jarraitu holan, jator. Etxekuen partez.



Zorionak, MADDI Unamuno, zure lehen urtebetetze egunian. Muxu potolo bat etxekuen partez.



Zorionak, LUCIA Parada Perez, hillaren 2xan bi urte egin zenduazelako. Muxu haundi bat, pitxin, gurasuen partez.



Zorionak, GAIZKA, astelehenian lau urte bete zenduazena-eta. Famelixaren eta, batez be, zure arreba Alaitzen partez.



Zorionak, MARTXEL, gure pilotarixa eta foballarixak gaur sei urte egiten dabelako. Muxu bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, MIREN Ortega Zubizarreta, hillaren 11n bi urte bete zenduazelako. Patxo haundi bat etxeko guztien partez.



Zorionak, IRAI, zure lehelengo urtebetetzian. Jarraitu halako alaiza izaten. Patxo haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, ENEKO, azaruaren 25ian sei urte bete zenduazena-eta. Muxu haundi bat etxekuen eta Izaroren partez.




Zorionak, ENEKO Arana, domekan 9 urte beteko dozuz-eta. Famelixa guztiaren eta, batez be, Mikelen partez.



Zorionak, MARTIN Elortza, hillaren 7xan lau urte bete zenduazelako. Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, MIREN Agirre, haraiñegun 16 urte egin zenduazena-eta. Hala, gozatzera! Muxuak aitta eta amaren partez.



Zorionak, MARKEL, hillaren 8xan lau urte bete zenduazena-eta. Muxu pottolo bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, AMAIUR, hillaren 8xan sei urte bete zenduazena-eta. Laztan haundi bat amama, amatxo eta lagun guztien partez.



Zorionak, ANE Bastida, astelehenian zortzi urte egingo dozuz-eta. Patxo haundi bat famelixa guztiaren partez.




Zorionak, MADDI eta PATXI asteon sei eta bost urte bete dozuez-eta. Segi beti bezain alai eta jator, gure bihotzeko txapeldunak! Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, SAIOLA, hillaren 8xan zortzi urte bete zenduazelako. Lagun guztien eta, batez be, MIKELen partez.



Zorionak, MARA (lau urte hillaren 15ian) eta ALAIN (urtebete 17xan). Muxu haundi bat etxekuen eta, batez be, LUCIAREN partez.




Zorionak, UR Agote Gorostizaga, hillaren 8xan lau urte bete zenduazelako. Muxu bat famelixaren partez.



Zorionak, MALEN Urizar Arruti, domekan bost urte egingo dozuz-eta. Muxu bat famelixaren partez.



Zorionak, PEIO!, astelehenian 9 urte bete zenduazena-eta. Patxo haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, ELENEXU! Hillaren 8xan bi urte egin zenduazena-eta. Jarraitu etxekuek zorutzen. Muxu haundi bat tia Anetten partez.

Zorionak, IDOIA (hillaren 2xan egin zenduazena) eta OIER (martitzenian egingo dozuz) zuen seigarren urtebetetzian. Laztan haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, IUNE Sukia, astelehenian hiru urte egingo dozuzelako. Famelixaren partez.

BARIXAKUA 13

PINTXO DEVELOPER

18.30. Bideojoko-zaleen topaketa. Anardi tabernan.

INAUGURAZIOA

19.00. Klub Deportiboko argazki taldearen erakusketa. Portalean.

ANTZERKIA

20.30. "De verden cuando". Millan Salcedo. 15 euro. Coliseoan.

ZAPATUA 14

EIBAR-SAHARA

11.30. 2. eskuko liburuen salmenta. Untzagan.

BABA-JANA SOLIDARIOA

12.00/14.00. Filipinetako kaltetuei laguntzeko. Razioak 5 eurotan. Casa del Pueblon (Ifar-Kale).

TAILERRA

17.00. Gabonetako apaingarriena. El Corte Inglesean.

KALEETAN KANTUZ

19.30. Kalejira, Untzagatik hasita.

KONTZERTUA

20.00. Karmelitetako organuaren 50. urteurrena. Karmengo Amaren elizan.

KONTZERTUA

00.00. Dead Bronko (Getxo) taldea. Ez Dok-en.

DOMEKA 15

EIBAR-SAHARA

11.30. 2. eskuko liburuen salmenta. Untzagan.

KONTZERTUA

11.30 & 13.00. "Benan eta Begigorri Munstroa", Cielito Musika Banda eta J.B. Gisasola Musika Eskola. Coliseoan.

ASTELEHENA 16

DESFILEA

09.30. Artilerena. Unzaga Plaza hotelean.

MARTITZENA 17

IKASTEN

10.00. "Los bombardeos de Eibar". Jesus Gutierrez. Armeria Eskolan.

IKASTEN

17.00 & 18.30. Joskintza tailerra. Portalean.

IKASTAROA

19.00. Koktel ikastaroa. ...eta kitto! Euskara Elkartean (Urkizu 11, solairuartearen).

EGUAZTENA 18

EIBAR EKINEAN

09.30. Ekintzaileen legearen inguruko eztabaida irekia. Portalean.

IKASTEN

09.30. "Golpe de efecto" (Robert Lorenz) filmaren inguruko bideo-foruma. Juan Aldai. Portalean.

IKASTEN

11.00. Kafe-tertulia: "Programas de television". Untzaga jubilatutuek.

BIDEO-FORUMA

18.00. "Quiero ser italiano" filmaren inguruko bideo-foruma. Portalean.

BILBAO MAKERS

18.30. Esperientziaren aurkezpena. Armagintza Museoa (Portalean).

EIBARKO KANTUZALEAK

19.00. Entsegua. San Andres elizan.

HITZALDIA

19.00. "SD Eibar. Un modelo de gestión a la eibarresa. Cómo nos vemos y cómo nos ven". Portalean.

GABON KONTZERTUA

20.00. J.B. Gisasola Musika Eskolakoak. San Andres elizan.

EGUENA 19

OSASUN-MARTXA

10.30. "Il. Mugi zaitez zure osasunaren alde". 3 kilometroko ibilbidea: Untzaga-Urkizu-Untzaga.
11.40. Osasunari buruzko esketx lehiaketa.
12.05. Antzezlanak: "Bizimodu osasuntsua".
12.25. Aerobic klasea. Untzagan.

IKASTEN

10.00. "Crecerse ante los contratiempos". Adindu. Armeria Eskolan.

NABARRALDE

19.00. "Donostia 1813, hiru inperioen biktima" DVD berriaren proiektzioa eta hitzaldia. Beñi Agirre. Arrate Kultur Elkartean.

IKASTEN

19.30. "Kaleetan Kantuz-ekoen entsegua. San Andres elizan.

MONOLOGOA

22.30. "Txou de Patxi". Laurel&Hardy tabernan.

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)

14an: 17.00, 19.45, 22.30
15ean: 17.00, 20.00
16an: 20.30

"Antes del anochecer"

Zuzendaria: Richard Linklater



(2 ARETOAN)

14an: 17.00, 19.45, 22.30
15ean: 17.00, 20.00
16an: 20.30

"Pacto de silencio"

Zuzendaria: Robert Redford



(ANTZOKIAN)

14an: 19.45, 22.30
15ean: 20.00
16an: 20.30

"Tres bodas de más"

Zuzendaria: Javier R. Caldera



(ANTZOKIAN)

14an: 17.00
15ean: 17.00

"Vaya pavos" 3D

Zuzendaria: Jimmy Hayward



Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

erakusketak

✓ Urtarrilaren 5era arte

EIBARKO KLUB DEPORTIBOKO ARGAZKI TALDEAREN erakusketa. *Portalean.*

ikastaroak

✓ IK Tailerrak

- GCompris

Norentzat: LH-ko 4. mailatik 6. mailara.

Non eta noiz: abenduaren 26, 27 eta 28an, 10.00-11.00 edo 11.00-12.00 (1. txanda) edo urtarrilak 2, 3 eta 4an, 10.00-11.00 edo 11.00-12.00 (2. txanda). **Izen-ematea:**

Abenduaren 16ra arte (6 euro), Pegoran.

- Inkscape eta Gimp

Norentzat: DBH-ko 1. mailatik 4. mailara.

Non eta noiz: abenduaren 26, 27 eta 28an, 16.00-17.30 edo 17.30-19.00 (1. txanda) edo urtarrilaren 2, 3 eta 4an, 16.00-17.30 edo 17.30-19.00 (2. txanda). **Izen-ematea:** Abenduaren 16ra arte (9 euro), Pegoran.

hildakoak

- Javier Alberdi Iribecampes. 82 urte. 2013-XI-27.
- Santiago Alonso Ballesteros. 64 urte. 2013-XII-1.
- M^a Luisa Andres Casanova. 87 urte. 2013-XII-1.
- Maria Gonzalez Menendez. 84 urte. 2013-XII-4.
- Maria Iriando Urionabarrenetxea. 81 urte. 2013-XII-4.
- Antonio Encinas Torres. 83 urte. 2013-XII-7.
- Milagros Astigarraga Aranberria. 80 urte. 2013-XII-7.
- Lourdes Larreategi Gorrotxategi. 78 urte. 2013-XII-8.
- Carmen Rodriguez Conde. 87 urte. 2013-XII-9.

farmaziak

✓ barixakua 13

EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

✓ zapatua 14

EGUNEZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)
GAUEZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)

✓ domeka 15

EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

✓ astelehena 16

EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

✓ martitzena 17

EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

✓ eguaztena 18

EGUNEZ **Iraundegi** (Sostoaarren, 10)
GAUEZ **Ibarrodo** (Zeharkalea, 2)

✓ eguena 19

EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ **Aranburu** (Gipuzkoa etor., 46)

✓ barixakua 20

EGUNEZ **Las Heras Laramendi** (Calbetón, 19)
GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)

jaiotakoak

- Alain Fernandes Vazquez. 2013-XI-19.
- Uxue Gutierrez Gonzalez. 2013-XI-23.
- Iria Lopez Alvarez. 2013-XI-24.
- Naia Gestal Galan. 2013-XI-25.

SUDOKUA

			9	3				
	2		5	1				8
		7	6			4		
					9	5	2	
		9		6		1		
	7	5	8					
		8			4	9		
	1			8	6			3
			2	3				

7	9	2	5	1	6	8	3	4
8	3	6	7	9	4	1	2	5
1	4	5	8	2	3	9	7	6
2	1	3	9	7	5	4	6	8
6	8	9	2	4	1	3	5	7
5	7	4	6	3	8	2	1	9
9	6	7	3	8	2	5	4	1
3	5	1	4	6	9	7	8	2
4	2	8	1	5	7	6	9	3

AURREKOAREN EMATZA

telefono jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora.....	010
Udaletxea.....	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB.....	943 20 38 43
Epaitegia.....	943 03 34 00
Iberdrola.....	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak ..	943 46 46 22
Gurutze Gorria...	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekoa.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza.....	943 53 17 00
Eusko Tren.....	902 54 32 10
Pesa.....	902 10 12 10
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon.	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen ..	650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.50etara ordu erdiro eta 09.50etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 20.55. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 13.30etara ordu, 15.00, 15.50etatik 20.30etara ordu eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.50etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 08.45, 12.45, 16.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Zapatuak: 09.00, 10.00, 11.00, 15.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **ELGETA-EIBAR.** Jaisteko: 20 minutu geroago.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.35etara 20 minutu eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara ordu eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu eta 22.15. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50etatik 21.10etara 20 minutu eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara ordu, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

EIBAR-LOIU. Egunerok: 05.50, 09.50, 13.50, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egunerok: 07.15, 11.15, 15.15, 19.15 eta 23.15.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egunerok: 08.13etatik 22.13etara ordu. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunerok: 07.47etatik 20.47etara ordu. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

EIBAR-BILBO. Egunerok: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunerok: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Pisia salgai Barrena kalean. Erdi-jantzita eta oso merke. Tel. 669-690391.
- Presa dut pisua saltzeko Errekatzu kalean. 2 logelekoa. Kalefakzioa. Denari jantzita. Tel. 659-757572.
- Etxe berria salgai, Zumaiatik 5 km-ara. 3 logela, egongela, sukalde eta 2 bainu. Jantzita. Bizitzera sartzeko moduan. 200.000 euro. Tel. 620-099120.
- Hormigoizko pisua erosiko nuke Eibarren. 60.000 euro ordaintzeko prest. Tel. 620-099120.

1.2. Errentan

- Pisia hartuko nuke errentan Eibarren. Tel. 682-688813.
- Pisia errentan hartuko nuke Eibarren. Merke. Tel. 628-257956.
- Logela-apartamentua alogagai Eibarko erdialdean. Tel. 653-727067.
- 3 logelatako pisua hartuko nuke errentan. Gehienez 500 euro ordainduta. Tel. 632-337083.
- 2 logela alogagai Eibarko erdialdean. Tel. 669-179522.

2. Motorra

2.1. Salgai

- Mercedes Benz E-320 CDI autoa salgai. 224 cv. 117.000 km. 2007. urtekoa. Egoera onean. Tel. 630-975501.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Garajea salgai Txomon. Marraduna. Tel. 658-710898.

3.2. Errentan

- Taberna alogagai Ipuruan. Tel. 651-007411 eta 658-595764.
- Garajea alogagai Ipuruako San Pion. Sarbide erraza. Tel. 669-931925.
- Lokala partekatuko nuke Isasi kalean. 180 euro. Tel. 620-608065.
- Estetika zentroa transferitzen da Ermuan ezin delako atenditu. Jardunean eta bezero finkoekin. Tel. 642-868417.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira:
Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro.
Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. Lana

4.1. Lan bila

- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 633-229985.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 636-247429.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 664-009684.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Externa. Tel. 662-012834.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Ordutegi zabal. Tel. 634-005760 eta 603-221649.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 681-374525.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko: etxeak, bulegoak, txokak... Tel. 600-332954.
- Emakume eskalduna eskaintzen da lan egiteko. Tel. 606-502567.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita jaiegunetan ere. Tel. 690-199860.
- Neska eskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 617-844142.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 8 urteko esperientzia. Externa. Tel. 638-230954.
- Neska eskalduna eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. Tel. 617-571210.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko orduka. Esperientzia. Tel. 626-197217.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta edozein lanetarako. Tel. 631-053696.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta edozein lanetarako. Tel. 602-865726.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 626-197217.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskera
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka. Tel. 619-041821 eta 943-744033.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 600-332954 eta 943-700229.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 695-303237.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta sukaldari-laguntzaile jarduteko. Tel. 606-354982.
- Emakumea eskaintzen da lan egiteko. Informeak. Tel. 638-233739 eta 654-600249.
- Emakumea eskaintzen da lan egiteko. Informeak. Tel. 696-770120 eta 603-282700.
- Emakumea eskaintzen da edozein ordutegitan lan egiteko. Tel. 603-282700.
- Emakume arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Informeak. Tel. 664-574504 eta 943-204140.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 628-425421. Santusa.
- Mutila eskaintzen da tabernan zein jangelan kamarero jarduteko. Tel. 692-332871.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 686-052084.
- Mutila eskaintzen da garajeak, pegorak edo trasteroak garbitzeko. Esperientzia. Tel. 943-257815.
- Neska eskaintzen da nagusiak gauzez zaintzeko. Tel. 666-008974.
- Neska eskaintzen da nagusiak gauzez zaintzeko eta orduka. Tel. 677-521374.
- Neska arduratsua eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 608-866535.
- Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Ordutegi zabal. Tel. 636-841158.
- Gizona eskaintzen da garbiketarako lanak egiteko eta altzariak garraiatzeko. Tel. 660-213652.
- Neska eskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Ordutegi zabal. Tel. 618-814064.

4.2. Langile bila

- Sukaldari laguntzaile behar da Eibarko jatetxe batean. Esperientziarikin. Bidali curriculum-a 46 postakutxatilara.
- Sukaldaria eta kamareroa behar dira Eibarko taberna batean. Bidali curriculum-a davidtubolab@gmail.com helbidera.
- Monitorea behar dira igeriketako klaseak emateko. Tel. 688-610620.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- Ingalaterratik etorritako neska ingelesezko klaseak ematen ditu. Maila guztiak. Ahozkoa lantzeko batez ere. Tel. 663-586212. Caitlin.
- DBH eta Batxilergoko ikasleentzako klaseak ematen dira. Tel. 669-954099.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Vaporetto Polti salgai. 230w potentziakoa, 2.250w galdara-potentzia. Tel. 943-202042.
- VRC bizikleta salgai. 12 abiadura. Ia berria. Tel. 943-200680 eta 634-425792.
- Binilozko diskoak, LP-ak eta singleak erosten ditut. Tel. 943-572057.
- Lehen jaunartzea egiteko traje marineroko salgai. Beige kolorea, 14 neurrikoa. 75 euro. Tel. 630-686469.
- Sofa marroia salgai. 3 plazakoa. Cheslong -2'70-, somier -1,35-, relax laminak -1'35x1,90- eta koltoia. Tel. 645-007388.

6.3. Galdu/Aurkitu

- Pailazoetan lagatako koadrodun aterkin gorria eta 5-6 neurriko jertse beltza ...eta kitto-n daude.

+ OSASUN GODA

Okulistak

Oftalmologoak
Centro de Oftalmología Avanzada

JOSE ALBERDI
ARRATSALDEZ

San Juan 11 - solairuartera
943 20 19 82

Oftalmologoak
Centro de Oftalmología Avanzada

Recalde
Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

• **Miopia ebakuntzak**
(femtosegundoko laserrarekin)

Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com



Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzakal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak digitalizatuak (scanner bidezko inpresioa)

ELENA AIZPUN
PODOLOGOIA
124 kolegiatu zenbakia

T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A
943 12 14 93



**BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050**

**ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943, 799746**

PODOLOGOIA
Erdiko klinika


Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

PODOLOGOIA

Maidere Lopez Etxebarria

Arragueta 2 Bis-B, Behea C
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.



PODOLOGO
T. ORTOPEDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41



Psikologoak

AMETS
**PSIKOLOGIA KLINIKOA
ETA OSASUN ZENTROA**

BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. bulegoa
Tel. 675 706 807

Coro Ortíz de Urbina
PSIKOLOGOIA
G201987 kolegiatua

- Masterra Praktika Klinikoan
- Patricioner P.N.L.
- Master P.N.L.

AROR
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA

(Ume eta helduendako)

Ana Artamendi

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa

T. Etxebarria, 10 - 6. ezk. (EIBAR)
Tel. 943 20 27 15 / 670 82 43 27

**UME ETA HELDUENDAKO
PSIKOLOGIA
KABINETEA**

Arrate Garitaonandia

**HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO
TRATAMENDUAK**

Bidebarrieta, 27-B (3. atea) 943 20 22 66
a_garitaonandia@hotmail.com



Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa

Oscar Mondragon Lili

Urkizu, 13 - behea
Tel. 943206823 eta 686859023



**HEMEN ZURE TOKIA izan nahi baduzu ...
... deitu 943-206776 telefono zenbakira**

ELGOIBARko San Miguel gainean

Belaustegi Baserria

JATETXEA

www.belaustegi.com



Abenduaren 21ean

MARIDAJE AFARIA

Prezioa: 50 € + BEZ (%10)

MENUA

- Leon sor-markako zaldi-zezina Idiazabal-txirbilekin. **Mi Villa urteko beltzarekin ezkonduta.**
- Txangurro eta itsaski entsalada Xerez ozpin-olioarekin. **Barrikan ondutako Olagosa zuriarekin ezkonduta.**
- Legatz-solomoa azafrai eta 6 Cepas ardo zuri saltsarekin. **6 Cepas ardo zuriarekin ezkonduta.**
- Foie, onddo eta mahaspasez betetako pularda eta Viña Olagosa kriantza ardo saltsa. **Viña Olagosa Kriantzarekin ezkonduta.**
- Fruitu lehorren bizkotxo harroa kafearekin txokolate zuri saltsan. **6 Cepas beltzarekin ezkonduta.**
- Kafea.

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK: Tel. 943 74 31 02



Erosi eta aukeratu zure
Gabonetako Otarra

MERKATU PLAZAN ZOZKETA ABENDUAK 20

DIRULAGUNTZAILEA

EIBARKO UDALA